

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea Bastidako udaleko funtzionarioen zerrendaren aldatetari

Bastidako Udalak, 2019ko otsailaren 6ko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Bastidako Udalaren funtzionarioen zerrenda aldatzeari, zeinen xedapen zatiak hau dioen:

a) Plazak amortizatzea:

Funtzionarioak:

Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Bereziatiko Azpieskala: hirigintza eta ingurumena kontrolatzeko ofiziala.

b) Plaza sortzea:

Funtzionarioak: Administrazio Orokorreko Eskala; C2 taldea; administrari laguntzailea; betetzeko prozedura: oposizioa. Destino-osagarriaren maila: 9; berariazko osagarria: 10.688,00 euro; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

Iragarki hau ALHAOn argitaratu ondoren jendaurrean jarriko da hamabost egunez, interesdunek aztertu eta, egoki iritziz gero, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onetsizat joko da. Alegaziorik balego, udalbatzak hilabete izango luke haiek ebazteko. Plantilla behin betiko onesten denean ALHAOn argitaratuko da eta Estatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eskudunari bidaliko zaio; horretarako, hogeita hamar egun izango dira, bat etorritoki Toki araubidearen arloan indarrean dauden lege arauen testu bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan xedatutakoarekin.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da. Era berean, ohartarazten da dekretu horrek administrazio bidea agortzen duela eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daitekeela. Gasteizko dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian eta, horretarako, bi hilabeteko epea izango dela ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritoki Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearekin. Hala ere, nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri baino lehen, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean iragarki hau argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera, bat etorritoki urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan xedatutakoarekin. Aurrekoek gain egoki iritzitako beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Bastida, 2019ko otsailaren 6a

*Alkate-lehendakaria*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**